

# JANGELAKO ARAUDIA

- Jangelara garaiz, lasai, era ordenatuan, bultza gabe eta behar den bezala sartu.
- Jangelako kide guztiak errespetuz tratatu (irakasle, ikasle, zerbitzari ...). Jangelako zaintzaileen eta arduradunen esana bete egin behar da.
- Zuzenean, batera eta bestera ibili gabe, bakoitza, dagokion lekura joan eta bertan, eserita, bazkaltzeko prest jarri.
- Jangelan garrasi egin gabe hitz egingo da.
- Egunero, bazkaltzeko dagoenetik, gutxieneko kantitatea jan, salbuespenak salbuespen.
- Debekatuta dago elkarri ura edo janaria edo beste ezer botatzea. Jangelatik inongo janaririk ezingo da atera.
- Mahai bakoitzean arduradun bat izango denez, bera izango da otordu garaian altxatzeko baimena izango duen bakarra (ura ekartzeko...).
- Bazkaldu eta gero ezin da ez altxatu, ez jangelatik irten, begiraleak edo arduradunak baimena eman arte.
- Bazkari garaian komunera joateko, zaintzaileei baimena eskatu behar zaie.
- Lurra eta mahaia garbi eta txukun mantendu behar dira; eta mahai tresnak zaindu behar dira.
- Ikasleren batek inoiz jangela zerbitzu beharrik ez balu jangelako arduradunari jakinarazi beharko diote bere gurasoek.
- Jangela barruan ezin da mugikorra erabili

## OHARRAK

- Ikasleari mugikorra kentzen bazaio, hurrengo egunera arte ez zaio itzuliko; gurasoek sinatutako orria ekarri behar dute.
- Jangelan egindako jokabide desegokien berri tutoreari emango zaio jakitera. Jangelako irakasle arduradunek ondorengo neurri hauek hartuko dituzte behar izanez gero: jangelan erratza pasarazi, hurrengo egunean aulkiak jaitziaz, ...
- Jokabide larrien kasuan jangelako arduradunek tutorearekin eta zuzendaritzakoekin batera erabakiko dituzte ondorioak: egun batean, aste batean edo betiko jangelako zerbitzua galdu.

## JANGELAKO PREZIOAK:

**OHIKO GARRAIATUAK: 3,30 €**  
**OHIKO EZ GARRAIATUAK: 4,60€**  
**NOIZBEHINKAKOAK: 5,20€**